

Beilatokia leku egokian. **Posible da!**

Berako Udala
Bera – Nafarroa

Beran, 2014ko uztailaren 24a

Jaun/andere agurgarriak:

2014ko apirilaren 27an aurkeztutako idazkiarekin jarraituz eta Berako herritarrei Iturlandetako bizilagunen egoerari buruzko informazioa banatu eta gero, Udalaren jarrerarekiko adierazi diguten kezka eta haserrea plazaratu nahi genizueke.

Zaila da ulertzea beratarrek beraien botoekin aukeratutako ordezkariak enpresa pribatu baten interesei lehentasuna ematea, batez ere gure eskakizunari ezezko erantzuna ematen ari den alderdiko ordezkari bat enpresa horren langilea delako. Beilatokia ezartzeko eskaera egiten duen enpresaren langile honek, botoa dauka baimena emateko.

Zaila da ulertzea Maldaerreka SL enpresak Iturlandetako bizilagunei lokalaren erosketari buruz inongo informaziorik ez eman izana kontutan hartuz aspaldi beste lokalak begiratzeko egondu zirenean hango bizilagunek ere ezezkoko erantzuna eman zutela (Bidasoia 12 kalekoa adibidez). Erraxa zen aurreikustea orain proposatzen zen lekuan erantzuna berdina izan behar zela.

Zaila da ulertzea enpresa batek lokal bat erostea horrenbeste kezka eta arazo sortzen duen ekintza baterako ez baleki alde aurretik Udalak ez zuela kontutan hartuko bizilagunek erran behar dutena.

Zaila da ulertzea bizilagunek euren kexak biltzen dituen idazki bat aurkeztea Malderreka enpresak bere proiektuaren eskaera aurkeztu baino lehen eta Udalak deus ere ez egitea... jakinda aukera desberdinak bazirela luzamendua barne. Beraz, susmoa hartzen dugu Malderreka enpresak bazekiela Udala ez zela agertuko beilatokiaren proiektuaren kontra eta horren ondorioz erosi zuela lokala.

Zaila da ulertzea denbora guztia erantzutea **“legea errespetatu behar da”**. Legeak, ageri den bezala, gizakiok aurrera egiten dugun heinean gure beharrei egokitzen ditugu. Horra hor emakumeen eskubideei eta gay-ei buruzkoak.

Beilatokiaren instalazioen kasuan beste komunitatetan (Andaluzian, adibidez, 1ko eranskina) eta nafarroako zenbait herritan (Tutera) legeria aldatu da. Nafar Gobernuak emandako informazioaren arabera azkeneko baimenak aparteko eraikuntzetarako eman dira; hau ikusita uste dugu gure eskaera beilatokia aparteko eraikuntza batean eta etxebizitzaren urrun egoteko koherentea dela eta baduela zentzurik.

Beilatokia leku egokian. **Posible da!**

Zerbitzu hau beharrezkoa dela uste dugu, herri osorako da, eta **inongo bizilagunek** ez dute bere gainean hartu behar guztiena dena, maila guztietan bizi kalitatearen murrizketa bat ekartzen duelako.

Gu prest gaude solasteko eta denontzat egokia izaten ahal den irtenbidea aurkitzeko. Gatazka honek sortu duen eztabaidan ikusi da beratarrek Udalak beilatokia bere gainean hartzea nahi dutela, Oiartzunen eta Lesakan bezala. Udal ordenantzak aldatzea eskatzen dugu eta Berako Udalak Nafar Gobernuari legeria komunitate osoan aldatzeko laguntza eskeintzen dugu.

Zuen erantzunaren zain, adeitasunez agurtzen zaituztegu

ITURLANDEAKO BIZILAGUNAK

Erantsitako dokumentuak: Andaluziako arartekoaren legeen bilduma.
Oiartzuneko herri beilatokiko zerbitzuaren arautegia.
Lesakako beilatokiaren kudeaketaren emakida